



zaharkitze
programatua
GARBINE UBEDA



BOOKTEGI

Guztion liburuak, guztiontzat

booktegi.eus

GARBINE UBEDA

zaharkitze programatua

2020ko Loraldirako sortua

Nekropolian, Don Inorrez

Momiak atera dira paseatzera
mugiro bila dabilta nekropolian
mugiro bia nekropolian

Auzoak hustu ziren mende hasieran
Inditex izurriteak eraginda
turistak dira ugaztun berriak

Kanpaiak entzuten dira
hiriaren bestaldean
hileta-martxa atsegin bat

Jende desegokia, toki egokian
mugiro bila dabilta nekropolian

Kanpaiak entzuten dira
hiriaren bestaldean
hileta-martxa atsegin bat
hiriaren bestaldean

Momiak atera dira paseatzera
mugiro bila dabilta nekropolian

Eboluzioaren teoriaren arabera, Homoia ez da beti Sapiens izan. Hori baino lehen, eta Australopithecusaren garai urrunetatik hasita, beste hamaika deitura bitxi ere ukan ditu. Ez noa, noski, historia goitik behera azaltzera, baina komeni da argitzea Sapiens izendapena —ezagueraren edo jakitatearen labela, alegia— giza espezie modernoaren jaiotza zedarrizteko aitzakia sinple bat besterik ez dela, eta ez duela baitezpadako loturarik espezie osoaren benetako izaerarekin. Nola ulertu bestela, Homo Sapiens-Sapiensak eta Homo Artaburu-Artaburuak patroia genetiko, antropologiko eta kasik politiko bereberkoak izatea gaur egun.

Aipa dezagun horren harira, Sapiens-Sapiensaren funtsezko kontraesan hori Grezia klasikoko homo ero batek jarri zuela agerian, eta ez zela preseski Homero izan. Homerok, gehientsuenok jakingo duzuen bezala, nahiko lan izan zuelako odisea luze batetik onik ateratzen. Homo ero diot, eta ez adibidez homo intelektual, batetik, pitoa izan behar delako gero, demokraziaren aurka aritzeko, non eta demokrazia asmatu zutenen joko-zelaian eta hoolligan guztien aurrean. Eta bestetik, batere zentzu logikorik ez duen axioma bat proposatu zuelako egia objektiboak bilatzeko metodo gisa eta sapientzia

sublimeenaren etsenplu. "Nik dakidan gauza bakarra da, ez dakidala ezer", bota zuen tipoak ziplo, dizipulu guztiak apunteak hartzen ari ziren batean. Eta halere, eskola sortu zuen, aizue. Delako ero ezjakina gaurdaino izan da gogoratua.

Hura, hortaz, ezjakintasunaz kexu, eta XX. mendeko Homo Sapiens-Sapiensik burutsuena, berriz, jakitateari berari garrantzia kendu nahian. Ez dut izenik esango, baina imajina ezazue tipo kalpar harro bibotedun bat, arbelean $e=mc^2$ idatzi ondoren, umemoko bihurriek bezala mingaina luze atera, eta batere ironia sokratikorik gabe, honoko hau esaten: "Edozein babok jakin dezake. Gakoa ulertzea da". Alegia, Bilboko kafetegi dotore batean sartu, mesedez eta silabak ongi ahoskatuz kafesne bat eskatu, eta "no entiendo" esaten dizutenean bezala.

Nabarmendu dezagun, halaber, homo megainteligente horrek, logikoa denez, jenio ikaragarri bizia zuela, edo euskara jatorrean esanda, sekulako aiurria, eta aho-bilorik gabe, gordin baino gordinago larderiartzen zituela larderiartu beharrekoak, bere aurrean aita santua bera paratuko bazitzaion ere. Erran nahi baita, "nire uste apalean", edo "beharbada oker nengoke baina", edo antzeko manera oneko formula leungarririk erabili gabe, beti tinko eta zuzen, nahiz eta, paradoxikoki, erlatibitatearen aita dela esaten den. Jarraian datorren esaldia ere berea da: "Bi gauza dira mugagabeak edo infinituak. Bat, giza ergelkeria, eta bi, unibertsoa; eta bigarrenaz ez nago horren ziur".

Ez nuke esan gabe utzi nahi, gizaki moderno bilakatzeko bide horretan, primateen ordenako bi genero-edo kondenatu zirela ostrazismora. Batetik, Homo Habilis delakoa, espezie gisa ageri zaiguna, baina paleogenetista askoren ustez, homo-z aparteko beste genero batean sailkatu beharko litzatekeena. Eta bestetik, jakina, genero femeninoa. Eta bigarren kontu honetaz, aitor dezadan azkar-azkar, gehiegi lokaztu gabe eta bitxikeria gisa, askoz argibide hobeak dakartzala King Kong teoriak, gure eboluzioaren gaineko beste edozein teoriak baino. Huskeria dirudi, baina nahaspila latza da ni naizen homo artaburu honentzat. Orain ez baitakit gorilak garen, ala moroak garen, behe-laino artean.

Eta lehentxeago aipatu dudan Homo Habilis delakoaz, esan, inguruko baliabideak partekatu nahi izan ez zuelako bidali zuela Homo Erectusak zakurraren ipurdira, jada Pleistozenoan. Oso jatorra, oso aparta, lanabesak asmatzen ere ikaragarri iaioa, baina utikan Homo Habilisa. Horra hor, garai postmodernootaraino heldu den leitmotivik behinena. Horra hor, eboluzioa eboluzio, sapientzia kasik itzalean uzteraino nabarmendu zaigun ezaugarria: gure ongizatea, besteen iraupenaren bizkar antolatzeke sena. Oportunismoa.

Errautsen argia, Don Inorrez

Zimiko bat izaten da,
tximista bat begien artean;
gero urteen osinean amiltzen naiz
argi zuri batek kopetan jo arte.
Eta orduan oroitzen naiz,
eta hiltzen naiz.
Oroitzen naizenean
hiltzen naiz.

Bihotz jauzi bat izaten da,
erresumina garondo erdian
gero dirdai bizi bat sartzen zait buruan,
eta ahiturik uzten nau iraganean.
Eta orduan oroitzen naiz,
eta hiltzen naiz.
Oroitzen naizenean
hiltzen naiz.

Pello Lizarralde

Tira. Ez dezagun dramara jo. Garbi dagoena da, kontraesan handi baten gainean dagoela eraikia sapienstasuna. Eta garbi dagoena da, bestalde, gizaki moderno deitzen den horrek urrats askoz ere azkarragoa daramala beste edozein arbaso hominidok baino. Airoso doa eboluzioan barrena, arin baino arinago, ziztu bizian alajaina, bidean gurutzatzen dituen gainerako espezie guztiak barregarri utziz, eta erdiko hatza homo erectusa bera baino tenteago jarriz. Egia esan behar bada, ez sinestekoa da hartu duen abiadura. Lehen milaka urte behar zituen tokian, orain, pare bat hamarraldi eta to, Homo Sapiensak beste zedarrri bat ipini du denboraren lerroan, eta ziurrenik, geruza berri bat Zumaiako Flyscean. Homo Sapiensa Homo Whatsappiens bihurtu da bat-batean. Jada ez du jakituria handirik behar aurrera egiteko. Aski du, komeni denean Wikipedian begiratu.

Jakitea, izan ere, zama da garaiotan, zorro bete harri noranahi eraman beharra bezain astun. Areago. Jakitea aberrazioa da, eta kurioski, baita giza eskubideen aurka joan litekeen zerbait ere. Galdetu bestela Navarra Sumako ekuazioaren barruan sartzen diren homoei, zergatik ari diren lingua navarroruma Nafarroako eskoletan irakastea eragozten. Zer arraroa euskararik gabe Nafarroa, abestu zuen orain ez aspaldi homo gazte histrioniko batek. Baina ez. Zer diote batuketa kenketaz ebazten duten apologista matematikazale berri horiek? “Etorkizuna ez jakitea da. Etorkizuna kontu horiek behin betiko alboratzea da eta bestela ez da etorkizunik izango zuentzat, hombre ya está bien”. Pin

eta pan piper-poto sakratuaren izenean, eta kito. Akabo Homo Artaburu-artaburuaren eskubideak errespetatzen ez dituzten Homo Sapiens-sapiensen inposaketak. Ignorantzia da berdinduko gaituena. Eta ignorantzia horren alde dagoen justizia inpartzialari dagokio berdintasun arlote hori bermatzea.

Adibide honi tiraka, eta apur bat gehixeago zehaztuz, hortaz, nabarmendu dezagun adarretatik joan gabe, kontua ez dela jakin ala ez jakin. Baizik eta ZER jakin. WHATsapiens.

Eta zer demontre da Homo whatsapiensak behar duena, jakituria atzean utzi badu edo jakingarri jakin batzuk interesatzen ez bazaizkio? Zer da Eboluzioaren AHTa hartu duen gizaki horrek eskatzen duena? Bada, sarea. Komunikatzeko, kontsultarako, segurtasunerako, kontrolerako, lanerako, aisiarako, ostiarena jotzeko, bullingerako, denetarako, sarea, sarea eta sarea. Horixe da oroz gainetik behar duena. Baina ez pentsa horren originala denik edo gaur-gaurko nobedadea denik ere. Badirelako gutxienez bi mila urte, sarearen aldarrikapena eskubide unibertsal gisa airean dantzan dabilela. Jesus ene, eskritura zaharretan ere ageri da-eta.

Begira zer dioen Bibliak, beren-berengi: "Eman gizonari arrain bat, eta egun bateko jana izango du. Emaiozu sarea eta arrantzan ikasiko du". Eta eman zitzaion. Berandutxo, baina eman egin zitzaion. Eman zitzaizkion, sare sozialak. Eta geroztik ozeano zabalean ematen du eguna, gehienetan arrantzan, eta batzuetan, edo uste baino askoz gehiagotan, arrantzaka. Memeak dira bere mementoko arraina, komeni bezala multiplikatzen ditu gainera. Izan ere, gure homo sasijainkotxoak klik zirtzil batez lor lezake lehen mirari hutsez baizik gerta ezin zitekeena, alegia multiplikazioa, nahiz eta gaur egun, oso alimalekoa denean behintzat, biralizazio esaten zaion, izurriteekin zerikusirik ez izanagatik ere. Dagoeneko hiztegia behar bezala erabiltzen ere ez dakielako izango da, agian. Batek daki.

Homo berria hitz bakarrean definitu beharko banu, plastikoa dela esango nuke. Eta arrazoi bat baino gehiago neukake hautu hori justifikatzeko. Esate baterako, delako elementua zopetan ere azaltzen zaigulako, eta jaten duguna garelako. Baina jo dezagun argudio begi-bistakoenez harago. Homo berria plastikoa da, inoiz baino malguagoa delako. Hain da malgua, hainbestekoa du plastikotasuna, ezen, plastikoaren inbasioaren errudun eta biktima izateaz gainera, homo eta jainko izan litekeela lehentxeago esan bezala, edo turista eta bertako, hurbil eta arrotz, doninorrez eta san handiuste... eta dena aldi berean...

Garai postmodernoan, Don Inorrez

Garai postmodernoan

Sozialista eta liberal
biak aldi berean

Garai postmodernoan

Komunista eta kontsumista
ateo eta elizkoi
sozialista eta liberal
dena aldi berean

Gero eta gehiago dira
ustel-jatorrak politikoki zuzenak

Garai postmodernoan

Gure aita Homo Sapiensa zen. Zehatzago esanda, sarda sozialak sare tekno-pelagikorik gabe batzen ziren garaikoa. Paper-fabrika batean aritu zen lanean, bazterrak kirastean eta kirastean, burutik ezin kendu diren abestien gisan, buklean. San Panfletok agintzen zuen garaiko proletarioa izanik, goiz, arrats eta gaueko lanaldiak txandakatu behar izan zituen ia berrogeita hamar urtean. Ikaragarri zekien zelulosaren kalitateaz, ibaia urdin edo arrosa kolorez tindatzen duten prozesuez, paper-bobinak metatzeko sistemez edo patronalaren potroez, eta noski, ezer gutxi sare bidezko arrantzaz. Baina bizi izan balitz, ziur naiz azkar baino lehen helduko ziokeela garai berriotako amuari. Izango zatekeen, influentzerra, edo twitterren epelak esanda hartzen duena plazera. Eta izango zukeen kanala YouTuben, like asko Snapchaten eta espazio bat ETBn, noren eta Felix Linaresen aldamenen. Gure aitak bazuelako egundoko etorria. Eta eboluzionatzeko egarria. Eta bazuelako izaki malgu eta kontraesankorren artean kamuflatzeko dohaina, fabrikako ordu estrak amaitzen zituenean. Ez dakit ez ote zen bera ere, hain justu, denborei aurrea hartutako homo whatsappiens bat... Izan ere, zer whatsappiensago, Sapiensaren txiste merkeak kuadrillakoen poteoan errepikatzeari utzi, eta eguneko perla, eguneko pizgarri filosofikoa, txio batek irau dezakeen luzeran sintetizatzea baino...

Behin, otordu oparo eta jendetsu horietariko baten postrean gazta mahairatu zigutenean, esan zigun bere hizkuntzan: "Lo mejor del queso, el membrillo".

To. Apeta txoroa dirudi. Edo modu literario klasikoago batean esanda, Whatsappiensaren gauerdiko eztula. Niri, ordea, Homo Euskarienseari buruz ari zela iruditu zitzaidan, hau da, euskalduna Bilboko jauregi baten izena baino gehiago dela frogatu behar izaten duen populuz ari zela. Eta esango didazue ez duela ez hanka eta ez ipurdi. Edo gazta zati batekin nire pelikula egin nuela, beste Maia

bateko tipo batek egin zuen moduan. Baina gauza bat esango dizuet nire hipotesiaren alde: gaztak eta euskara parekatzea, euskaragatik gaztakoak hartzea bezain tradizio handikoa izan da azken mende pasatxoan, eta ez soilik Idiazabalen. Baita, demagun, nire bizitoki Hendaian ere.

Duela gutxi arte, esate baterako, kaleko afixa handi batekin egiten nuen estropezu, ia goizero. Hendaia bide-bazterrik estrategikoenean zegoen jarrita. Alegia, nire moduko despistatuak ez ezik, gizakiak paseatzen dituzten zakurrak, hondartza-inbaditzaileak, eta oro har, jitoan mugitzen diren turista saldoak joan-etorrian harrapatzeko moduan. Kurioski, afixa horretatik oso metro eskasera dagoen etxe batean bizi izan omen zen erbesteratuta, Migel Unamunokoa, bakardade argigarriaren bila aritu zena, eta beharbada horregatik, diot nik, argitasun horretan tematu zelako hain zuzen, euskara bonbilla batekin nahastu zuena, zaharkitze programatua besterik ez baitzion aplikatu nahi izan. Nahi zion, eutanasiaren gisako zer bait ezarri, eta nahi zuen homo euskariensea bere buruaz beste egitera behartu, ez ziolarako garai modernoetarako erabilgarritasunik ez malgutasunik ikusten. Esan dezagun Unamunoren defentsan, halakorik ez ikustea, hein batean behintzat, normala izan zitekeela, gehiegizko argitasunak itsutu egiten baitu. Orduan ez zuten jakingo gaur dakiguna: eklipseei erreparatzeko ere betaurreko bereziak behar izaten direla.

Baina joan gara berriro adarretatik, esplikatuko beharrekoak ondo esplikatuko gabe lagata. Kaleko afixa bati buruz ari ginen. Ba, delako afixak, gogoan dudanez, Irati aldeko ardi gasna bikain bat zuen ageri, holaxe aurkeztuta: "Le fromage qui parle basque".

Nik, egia esan behar bada, gauza handirik ez dakit artaldeez edo jatorri-izendapenez, eta are gutxiago %100 Basque deritzen aferez. Baina handik igarotzen nintzen bakoitzean, Itxaro-penaren Bordan nintzela iruditzen zitzaidan. Zeren eta, bada marka, esaten nuen nik nire kolkorako: hain zaila, hain bihurra, hain artifiziala eta hain urruna omen gaurko euskara batzuen ustez, eta horra, materia grisik gabeko elementu batek, tak: azalaz eta mamiz, euskara, eder eta natural. Ez aparteko konplexurik, ez ofizialtasun mugarik, ez chauvinistekin talkarik, ez suprefetaren baimen beharrik, ez bazterkeria salaketarik, ez bestelako betiko folklorerik ere.

Ezin uka garrantzia. Ezin uka, gertaerak aurreikuspen eta uste guztiak apurtzen zituenik. Ziur nago, euskararen sustapen-lanetan dabilen bati baino gehiagori zerbaitek krak egingo ziola bihotzean, inventariuma egitean. Eta hiru arrazoi emango ditut horretarako. Batetik, euskaraz mintzo ziren gazta horiek ez zirelako gaur behin eta berriz aipatzen diren arnas-gune edo arigune horietako batetik atereak; kontrara, gure aitak fabrikatzen zuen papera bezain industrialak zirelako. Alegia, euskarari historikoki ukatu izan zaion esparrukoak, ez Txomin Agirreneako garo artean sortuak edo Urepeleko artzainaren mendi-hegaletan gorakoak. Bigarrenik, turismoari edo bederen besteei zuzendutako produktua izanik ere, hizkuntzak definitzen zituelako, eta ez Pays Basque delakoak, zeinak, bide batez esanda, Euskadik edo Basque Country ospetsuak bezainbeste mutilatzen duen. Eta hirugarrenik, noski, iragarkiak zekarren informazio begi-bistakoenarengatik. Gaztak zirelako.

Hortaz, ez gorila eta ez moro, gaztak gara beheeeeeee-laino artean, eta orain horretara dauzkagu egokitu beharra, bai gure estereotipoa, bai eta gure kantutegia ere. Aitorren hizkuntz zaharra nahi degulako zabaldu oraindik ere, baina munduaren aurrean gizonki azaldu behar izan gabe.

Nolanahi dela ere, gu gazta bagara, zer da orduan menbrilloa? Zer da gailentzen zaigun elementu gozo likatsu hori? Gure merituak bereganatzen dituen aprobetxategia da, ala akatsak estaltzera datorren edulkoratzaila? Tamalez, sinonimo argi bat eman baino lehen joan zen aita, bere aforismoak, bere lo mejor del queso el menbrillo delakoak eragin zidan dardara airean utzita.

Baina ez nuke haria aske utzi nahi. Bertsolariek erantzun hoberik asmatzen ez badigute behintzat, eman dezagun erantzuna norberaren arabera dela. Eman dezagun, menbrilloa zirkunstantziala dela, baldintzatzen nauen bizipena dela, eta gaztago egiten nauena. Eman dezagun, pentsalari baten esaldia nire eginez, ni naizela ni eta nire menbrilloa.

Dardara hura, Don Inorrez

Han ginen, aita, senideok;
joan zinenean utzitako baratzera bilduak.
Leuna eta gozoa zen haizea,
bizia belar berriaren usaina.
Eta bat-batean isildu egin ginen.

Zu al zinen, aita,
airean zebilen dardara hura?
Zu al zinen?

Han ginen, aita, hitzik gabe,
Zuk ukituak zenituen haiek ukitzeko beldurrez.
Lanabesak, altzariak, harria...
Denak egunen joanak izoztuta.
Begiak jaso genituen orduan.

Zu al zinen, aita,
Airean zebilen dardara hura?
Zu al zinen?
Pello Lizarralde

Gazta gara. Superficie handietan, zatikatuta, hutsean plastifikatuta eta hotzean kontserbatu ohi den jenero batekoak, alegia. Eta j-z idazten den jeneroak eta g-z idazten den generoak funtsean zerikusirik ez duten arren, ekidinezina zaigu alderaketa. Gogora dezagun Pleistozenoan gertatutakoa. Gogora dezagun Homo Habilisa; paleogenetista askoren ustez homo-z aparteko genero bat osatu beharko lukeena; eta, oso jatorra, oso aparta, oso trebea, baina Homo Erectusak eboluzioaren lerrotik utikan bidali zuena, baliabideak ez partekatzearren.

Garai posmodernootako Homo Habilisa ote da euskaraz mintzo den homoa? Batzuek esango digute, zalantzarik gabe ezetz. Ez dela negarti alarmista izan behar. Eta beste batzuek aldiz, esango digute baietz. Zalantzarik gabe baietz. Bagarela. Pleistozenoko Homo Habilisaren patu txarra ari garela tentatzen. Eta zergatik? Ba, kurioski, hemen ere, letra baten dantzagatik. Zehatzago esanda, bokal batengatik. GAZTA ez delako GAZTE. Eta gezurra dirudi E minuskula ziztrin ezdeus batek nola alda dezakeen panorama, nola itzulipurdika dezakeen etorkizuna. Baina momentuz, gazteak, oro har, ez darabil euskararik bere egunerokoan, eta hortaz, GAZTEA ez da GAZTA, eta kontraesan itzela da, gaztea GAZTA-ARO betean bizi baita. Kontraesanak kontraesan, ezin uka, gazta gaztetzen ez bada, eta era berean gaztea gaztantzen, ez gabiltzala oso oker etorkizun ez urrun batean gaztarenak egingo duela esanda.

Baina zer da bi letra zirtzilek osatzen duten aho-korapiloa, debeku guztien gainetik irautea, zahartze programatuari aurre egitea, h-aren gaineko kalapitak gainditzea eta euskara estandarra definitzea, puntueus domeinua martxan jartzea, Whatsappiensaren abiaduran atzean ez gelditzea edota adimen artifizialean oinarritutako itzultzaile automatiko bat plazaratzea lortu eta gero. Zer ote da bokal minuskula baten dantza...

Bilbo aldeko olerkari Sapiens-Sapiens batek ere, justuki, A eta Eren alternantzia oinarritu zuen bere obrarik ezagunena. Eta hartara noa ni zuzen, HARRIak eta HERRIak izenburutik batu zituen olerki-liburu horretara, eta zehazki, aitaren ondarea aipatzen duen orrira, GAZTEN eta GAZTEEN arteko erlazio iheskorra ulertzen lagunduko didalakoan. Eta otutzen zait, poemak dakarren profetia gureari aplikatuta,

Galduko duela,
ergatiboa,
hitanoa,
aditz trinkoa.
Galduko duela,
tz-ren ahoskera,
berezko doinua,
legezko hiztegia eta
joskera jatorra.
Baina gaztaren etxeak
iraunen duela zutik.

Eta zer-nolako bermea daukat nik, hementxe alaitsu eta kementsu agertzeko eta etorkizunean zutik eta indarrean iraunen duela baieztatzeko... Ba hizkuntzak berak ematen didan bermea. Gaztearen aroa gaztaroa den bezala, gaztaren etxea gaztetxea delako, nagusiki hamaika bider eta azkar-azkar errepikatzen baldin bada. Egin aproba: gazta-etxea, gazta-etxea, gaztaetxea, gaztaetxea, gaztetxea...

Homo euskarienseak Whatsappiensaren garaian bizi duen dilema argitzeko eta etorkizuna igartzeko aski ote den ? Nire uste harroan, bai.

Baina auskalo.

Auskalopitekus bat besterik ez naiz, nire behe-lainoa noiz saretuko zain.